

Bizkaiko Kopa irabazi dute Errotabarri Klubeko kadeteek

Denboraldi bikaina egin dute Errotabarri Eskubaloï Klubleko kadeetek. Euskadiko Txapelketan 3. postua lortu dute eta Espainiakoan finaletako atarian geratu dira. Azkenik, Bizkaiko Kopa jokatu eta irabazi dute. Datorren denboraldian, entrenatzaile berria eta umeentzako eskola izango du Klubak.

Errotabarriko kadeteek Matiko San Adrian taldearen kontra jokatu zuten Kopako finala, maiatzaren 31n, Barakaldoko Lasesarre kiroldegian. 30-28 irabazi zuten, eta emaitza horri esker, 2013-2014 denboraldiko lehen titulua eskuratu zuen 14 eta 16 urte bitarteko neska talde honek.

Mikel Martin entrenatzaileak dionez, titulua lortzea poztekoa da, baina jokalariek hauek ohituta daude beste maila batean jokatzeko. "Euskadin eta Espainian hortxe-hortxe aritu gara eta titulu hau, ez dut esango kontsolazio-saria izan denik, baina tira... Beno, denboraldiari brotxea ipini diogu".

Jokalariek ere bazuten Espainiako fase finalean jokatzeko esperantza eta promesa egin zioten euren buruei: sailkatzen baziren, ile-motots bat arrosaz tindatuko zuten. Sailkatu ez, baina ilea tindatu zuten berdin-berdin; entrenatzaileak, berriz, kokospekoa morez tindatu zuen.

2014-2015

Beste denboraldi batzuk oparoagoak izan dira Klubean, Mikel Martinek aditzero eman duenez, eta dagoeneko hurrengo prestatzeko hasiak dira. Zenbait berrikun-

tza egongo dira Klubean. Seniorrek, esaterako, entrenatzaile berria izango dute: Bera Bera taldea utzi berri duen Imanol Alvarez ermua-rra. Alvarezek, gainera, beste kategoriako taldeei laguntza eskainiko die.

Era berean, aurten sortu duen eskubaloï-eskola sendotuko du Klubak. Aurre-benjaminiei (5 eta 7 urte bitarteko umeei, alegia) zuzendutako eskola abiatu zuten urtarrele- an. Ordutik, hilean behin elkartu dira, eta jokoen bitar-

tez, eskubaloïaren oinarriko kontuak irakatsi dizkiete herriko 65 neska eta mutili. "Bospasei saio egin ditugu, baina irailetik aurrera, kontu hau serio hartuko dugu", dio Martinek.

Azkenik, ekainaren 15ean, Errotabarri Eguna egin zen lehen aldiz. Eskubaloïa kale- ra ateratzeko helburua zuen Klubak, herriko bizilagunek taldearen berri izateko. Gaur egun 100 jokalariek inguru aritzen dira taldean.

Dorleta Vidal



Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50